

BARRUKO GUDA**BERTSOLARI ZAPUZTUA**

Bide azpiko etxeán
—lore baratz naruá—
Maiteader bizi da txairo,
barnean daula sua.

Lili ezpaten artean
—txori zauritu atzo—
naikari biziz aserik
ikusi neban atzo.

[zarrakaz dagi ames
—sai goizale bikaiña—,
barruan dauan atsona
doakola tartaiña.

Zuk, ostera, bertsolari!
—gatza ta pipermina—
jo dautsazu leio ondoan
goiz-tobera txiliña.

Ez eutzen zirkiñik, baiña,
arean be ak egin,
ez biotzik astin-azo:
atxurdiña zirudin.

Alde zendun andik «matsa
gordin yagok» esanik.
— Ez, geldo, mats ori ez dok
iretzat, ez, iñundik.

Oiu dagiat, itxaso biur:
zer darabilk ain aldakor?
Gain-urdin atzo, amesti jasez,
ta gaur orru dagik gogor.

Barne-samiñik etsienean
leiar gilborra putzitu
ta arrizko esiz baituten auen
aitzak nai dozak zatitu.

Zintzurretako bits atsituan
ondartza zikin daroak;
mintzatu akit, Kantauri arro,
¡re itz-miñetan bai naukak.

Baiña... ez, ixo!, ba-dazaut eta
zerren agoan muturik:
uin-litsean bein neuskan irakur
ta ba-jakiat geroztik.

Barrun ba-dot neuk be guda lakan,
erreztzo jasan eziña:
azke ibil gura ene **zer** onek,
baso usuau lez oreiña.

Biziki digart barru muiñean
etsai biren jotze urbilla;
gain itzal gaizkor bai lebilkidan,
zorapenezko naspilla.

Egaize balak zingira gaiña
nasi oi daben antzean,
zer gordearen dardara bizi
sarriro doart soiñean.

Etsai eraso, burruka latza,
eguzki dirdairik bako!
Uin-jauzika ots dagikanean
dirudik itxaso arro.

Goitik gogoa zidar egalez
dago jantzita: zerumin;
aragia, irrits murkoa eskuin,
ikus beerago: ludimin.

Izanez bata ustelkor dozu,
bestea barriz il-gaitza;
lur ala gogok jadats ereño?
norentzat ete garaitza?

Or dabilkidaz lera-sugeak
biotz ganbaran txistuka:
oillo samara mirotsa letxe,
jarkitzen alkar eztenka.

Aragiz azke dan gotzon argi
edur egoduna iduri,
lokiak ausiz ludi ontako
beatzun-arana itzuri.

Goira dot igon nai ego iraulka,
jzarren isla mosutu,
ta azkar garaituz ortze oztiña,
argi erriaz jabetu.

Ango goiz-aize, oi!, nok leukake!
Usno goitarrak arnastu,
argi jturnan egarri sua ito,
Jainko-besoan atsartu!

Baiña sugetzar marraskariak
lei ardoz mozkor nakarre;
ta ene gora miñak or epel,
jllotzen taiua darre.

ATZIPETUA

Laburrak, ziñez, nire atsegin orduak!
Joana az, ene maite, jbaia lez bizkor,
ta ni oroiz betea emen, ai!, ezezkor,
konta eziñik neure neke ta doluak.

Ez neban iñoz uste, iñoz, ez orixe!,
egun artako argi lausorik bagea,
ez, ez yatan iduri izan poz betea
ain laster itzuliko yatanik oiñazei

Baiña iduri utsa zan, ames gaillena,
nik olan jantxitako jauregi bikaiña.
Nok ete onen erru? Ez iñok nik aiña.
Lorea eder, ba'ña barruan edena.

Maite dardaiz josia ibilli naz zoro.
Bizitz sua itxuratan zoragarri dozu;
ezta, barriz, ispilla egiaren zitu,
ta ni be aren mende nago, gaur, osoro.

Bai, lilluragarria az, elai arraparil
Dana dagik erreza, zillegi, ederrik.
Oi, ames gaizto! Ezpei, ez, ire esanik
iñok betetu, izan nai ezik lotsari.